HAUTESKUNDE SINDIKALAK

SUKALDE ETA GARBIKETAN

# BAGARA zurekin

*Egiteko beste modu bat*



LAB

*Gure lana ezinbestekoa da bizi osasuntsu egoki bat izateko. Bazkariak prestatzea, higienea eta garbitasuna mantentzea zaintza lanak dira-eta. Ardura handiko betekizunak ditugu, horregatik eskoletan funtsezkoak gara. Hori dela-eta, lan-baldintza duinak behar ditugu eta ekipamendu egokia hezkuntzako zerbitzuetako langileon kolektiboak kalitateaz lan egin dezan.*

*Duela 6 urte, LABek gidatutako EAEko irakaskuntza publikoko mobilizazio-dinamika luze baten ondoren, Sukalde eta Garbiketan lehen indarra izanik 2018ko akordioa sinatu genuen.* ***Akordio honek lan-baldintzen hobetzea ekarri zuen*** *hurrengo arloetan:*

**Etengabeko prestakuntzari dagokionez**, lan-arriskuen inguruko prestakuntza eta formazio higieniko-sanitarioa.

**Lanpostuen zerrenda egokitu zen**, lanpostu berriak sortu ziren sukalde eta garbiketan.

**Ratioak ezarri ziren sukaldetan**: ordu gehigarriak zehaztu ziren dieta kopuruan ez ezik, bazkaltiarren kopurua kontuan hartuta ere. Gainera, dieta berezien inguruan prestakuntza  jasotzea adostu zen .

**Langileak euskalduntzea**: euskara ikasteko liberazioen kopurua bikoiztea lortu genuen.

**Garbiketako  metroak**: 1240 $m^2$ko neurria ez gainditzea lortu genuen. Lanbide Heziketako zentro integratuetan, 1030 $m^2$.

2019ko hauteskundeen ondoren blokeoa jasan behar izan dugu lehenengo indarra izatetik hirugarrena izatera pasa ginenean. **Oso gai garrantzitsuak geratu ziren zintzilik: besteak beste, Lanbide Heziketako zentro integratuetako garbiketako metrajearen berrikustea eta sukalde eta garbiketako funtzioak zehaztea.**

Azken 4 urteetan, lan-hitzarmenaren negoziazioa abiatzea blokeatu dute gainontzeko sindikatuek; Ordezkagunea aplikazioa martxan jartzea atzeratu dute, eta, ondorioz, ordezkapen guztiak ez dira betetzen ari.

2021eko abuztuaren 31tik ez da zerbitzurik barematu eta ordezko asko zerbitzurik gabe azaltzen dira, honek zerrendak eguneratu gabe daudela esan nahi du.

Egoera honen aurrean, **LABek etengabeko proposamenekin lan egiten jarraitu du: hitzarmen berria negoziatzea eskatuz, baita Ordezkagunea abian jartzea ere, ordezkapen guztiak bete daitezen.**







*Nuestro trabajo es imprescindible para asegurar una vida saludable. La preparación de comidas, el mantenimiento de la higiene y la limpieza, son tareas de cuidados. Conllevan una gran responsabilidad y exigencia, por lo que somos esenciales en los centros educativos. Por ello, son necesarias unas condiciones laborales dignas y un equipamiento adecuado, para que el personal de servicios de educación pueda trabajar en las mejores condiciones.*

*Hace 6 años, tras una larga dinámica de movilizaciones en la enseñanza pública, liderada por LAB, y siendo la primera fuerza en Cocina y Limpieza,* ***firmamos el acuerdo de 2018 que supuso una mejora de las condiciones laborales*** *en cuanto a:*

**La formación continua**: formación en riesgos laborales, formación higiénico-sanitaria.

**Adecuación de la RPT,** con la creación de nuevos puestos de trabajo tanto en cocina como en limpieza.

**Establecimiento de ratios en cocinas**. Se especificaron horas adicionales en función no sólo del número de dietas, sino también del número de comensales. Además, se acordó la formación en dietas especiales.

**Euskaldunización del personal**. Conseguimos más del doble de liberaciones para aprender euskera.

**Metraje de limpieza**. Conseguimos que el metraje no superara los 1240 $m^2$. En los centros integrados de Formación Profesional, 1030 $m^2$.

Tras las elecciones de 2019 hemos sufrido una situación de bloqueo al pasar de ser la primera fuerza a ser la tercera. **Algunos temas muy importantes quedaron pendientes**, entre otros: **revisar el metraje de limpieza de los centros integrados de Formación Profesional y definir las funciones en cocina y limpieza.**

En los últimos 4 años el inicio de la negociación del convenio ha sido bloqueado por el resto de sindicatos, se ha retrasado la puesta en marcha de la aplicación Ordezkagunea, y, como consecuencia, no se cubren todas las sustituciones.

No se ha realizado la rebaremación de servicios desde el 31 de agosto de 2021, por lo que gran parte del personal sustituto aparece sin servicios, lo que significa que las listas no están actualizadas.

Aún y todo, desde LAB hemos seguido trabajando presentando **nuevas propuestas**: pedimos que se negocie el nuevo **convenio**, así como la puesta en marcha **Ordezkagunea** para que se cumplan todas las sustituciones.

## BIDE JUDIZIALA

Finkotasunaren demandak bidean ditugu. 2021ko abenduan, ebazpen judizial batek atea ireki zuen lanpostu bakantean hiru urte baino gehiagoz zeuden behin-behineko langileek, LEP prozesu bat gaindituta izanez gero, finkotasuna erreklamatzeko. LABek demandak sartu ditu behin-behinekotasun tasaren abusua salatuz.

## KONTSOLIDAZIOA

Lan-legepeko langileei dagokionean, kontsolidaziorako salbuespeneko deialdien oinarriak negoziatzeko Hezkuntza Sailak eskumen osoa izan badu ere, bertan lanean egon diren langileen esperientziaren baremoa %60ra mugatu du, EAEko funtzio publikoko aginduei jarraiki eta LABek proposaturiko %90ari muzin eginez. LABek gehiengoa duen Haurreskolak Partzuergoan langileen esperientziaren baremoak % 75eko puntuazioa izatea lortu dugu, ordea.

Sukalde eta garbiketan, ELA, UGT eta CCOOek bertako langileon esperientziaren baremazioa %60ra mugatzen duen deialdia babestu eta sinatu dute. Horretaz gain, sinatu duten akordioan ez da lortu atera zitezkeen lanpostu guztiak eskaintzea, ez eta 60 urte baino gehiago duten langileak babesteko neurririk ere, eta ez dakigu langile finkoen lekualdatzeak gauzatuko diren ere. Sukalde eta garbiketako oinarriez gain, Hezkuntza Sailak gainontzeko kolektiboetan ez du babes eta sinadurarik eskatu, izan ere, ez baitute behar, behin-behinekotasun tasa %8ra jaisteko salbuespeneko deialdiak gauzatu behar dituztelako legez.

## PANDEMIA GARAIAN ERE

Garbitzaileak funtsezko bihurtu ginen. LAB langileen ondoan jarri zen, eta hainbat ekarpen egin zizkion kontingentzia-planari. Kolektiboari egokitutako norbera babesteko ekipamenduak eskatu genituen. Jangelak irekita mantentzeko aldarria ere egin genuen.

LABek ekarpenak eta eskaerak egin zituen, eta, besteen artean, aurreikusita zeuden baino Covid errefortzu kontratu gehiago lortu genituen.

## VÍA JUDICIAL

Están en marcha las demandas de fijeza. En diciembre de 2021, una resolución judicial abrió la puerta a que las trabajadoras y trabajadores que llevaban más de tres años con contrato de vacante, y que hubieran superado un proceso de OPE, reclamaran su fijeza. LAB ha interpuesto demandas denunciando el abuso de la tasa de temporalidad.

## CONSOLIDACIÓN

En lo que respecta al personal laboral, aunque el Departamento de Educación ha tenido competencia para negociar las bases de las convocatorias excepcionales de consolidación, ha decidido limitar al 60% la baremación de la experiencia del personal en activo, siguiendo las directrices de Función pública de la CAV y rechazando la propuesta de LAB de que ésta supusiera un 90% de la puntuación. En El Consorcio Haurreskolak en el que LAB obstenta la mayoría hemos conseguido que se llegue al 75% en el baremo de la experiencia.

ELA, UGT y CCOO han avalado y firmado la convocatoria de Cocina y Limpieza, que limita al 60% la baremación de la experiencia. Como consecuencia, con lo firmado no se han ofertado todos los puestos de trabajo que podrían haberse sacado, no se han tomado medidas para defender el empleo del personal mayor de 60 años y tampoco sabemos si se realizará el concurso de traslados. En el resto de colectivos, el Departamento de Educación no ha solicitado apoyo ni firma, no hacía falta, ya que deben realizar por ley las convocatorias extraordinarias con el fin de reducir la tasa de temporalidad al 8%.

## TAMBIÉN EN TIEMPOS DE PANDEMIA

El personal de limpieza nos convertimos en esenciales. LAB se puso al lado de las trabajadoras y trabajadores y presentó diversas aportaciones al plan de contingencia. Solicitamos equipos de protección individual adaptados al colectivo. También reivindicamos mantener abiertos los comedores.

LAB presentó propuestas y peticiones y, entre otras cosas, conseguimos más contratos de refuerzo COVID de los que estaban previstos.

## ETA HURRENGO LAU URTETARAKO ZER?

Apustu sendoa egingo dugu helburu hauetarako:

• **Pribatizazioarekin bukatu**.

• **Kolektiboaren aitortza**: sukaldariak eta garbitzaileak hezkuntzaren parte gara.

• **Lan-osasuna bermatu**: lan-arrisku eta arrisku psikosozialen ebaluazioa jasoz eta lan-egokitzapenen protokoloak negoziatuz.

• **Langileen etengabeko prestakuntza eta euskalduntzea bermatzea**, hezkidetzan eta inklusioan formazioa ere jasotzea.

• Sukaldarien eta garbitzaileen **asteko lan-jardunaldia 35 ordukoa** izatea.

• Aldi baterako kontratuekin eta jardunaldi partzialekin bukatuz, **bakante berriak sortu**.

• Sukaldarien eta garbitzaileen **funtzioak zehaztea**.

• Sukaldeetako bazkaltiarren **ratioak eta garbiketa-metrajea jaistea.**

• Plantillak gazteberritzeko neurriak ezartzea: **errelebo-kontratua guztiontzat**, aurre-jubilazioaren pizgarriak ezarriz.

• **Soldaten igoera eta soldata-arrakalekin bukatzea**.

• **Ordezkapenak lehen egunetik**, eta **ordezkoen araudia negoziatzea**.

• **Ordezkagunea** martxan jartzea negoziatzea.

## ¿Y EN LOS PRÓXIMOS 4 AÑOS QUÉ?

Apostaremos firmemente por los siguientes objetivos:

• **Acabar con la privatización**.

• **Reconocimiento del colectivo**: El personal de **cocina y limpieza somos parte en educación**.

• **Garantizar la salud laboral**: incluyendo la evaluación de riesgos laborales y riesgos psicosociales y negociando protocolos de adaptación del trabajo.

• **Garantizar la formación y euskaldunización continua** del personal, incluida la formación sobre coeducación e inclusión.

• **Jornada semanal de 35 horas** para el personal de cocina y limpieza.

• Terminar con los contratos temporales y las jornadas parciales. **Creación de nuevas vacantes**.

• **Definir las funciones** del personal de cocina y limpieza.

• Reduccion de los **ratios de comensales y reducir el metraje de limpieza.**

• **Medidas de rejuvenecimiento de plantillas**: contrato relevo para todo el personal e incentivación de la prejubilación.

• **Aumento de salarios y fin de las brechas salariales**.

• **Sustituciones desde el primer día**. Negociación de la **normativa del personal de sustitución**.

• Negociación y puesta en marcha de **Ordezkagunea**.



# Hezkuntza legeari LABen ekarpena

*LAB sindikatuak aspaldi esan zuen hezkuntza sistema hau agortua dagoela eta, barne eztabaida sakon bat egin ondoren, aurkeztu genuen  Euskal Eskola Publiko Komunitarioa IRUTEN proposamena. Sare publiko bakar, burujabe eta deszentralizaturako proposamena, alegia.*

*Azken hilabeteetan EAEko Hezkuntza Lege berriaren aurreproiektuaren eztabaida dago erdigunean. Hezkuntza Legean eragin nahi dugulako mobilizazioak eta grebak egin ditugu, “Publikoa, Euskalduna eta Propioa” helburu dugulako. Eraiki nahi dugun sare publiko bakar, burujabe eta deszentralizaturako  hezkuntza legeak trantsizio tresna izan beharko lukeela uste du LABek.*

## LEY DE EDUCACIÓN

*El sindicato LAB dijo hace tiempo que este sistema educativo está agotado y, tras un profundo debate interno, presentamos nuestra propuesta: tejiendo la Escuela Vasca Pública Comunitaria. Una propuesta hacia una red pública única y descentralizada.*

*En los últimos meses, está sobre la mesa el debate del anteproyecto de la nueva Ley de Educación de la CAV. Con el fin de incidir en dicha ley, hemos realizado movilizaciones y huelgas en defensa de un sistema educativo Público, Euskaldun y Propio. LAB considera que la Ley de Educación debería ser el instrumento de transición hacia una red pública única, soberana y descentralizada.*

Langileoi eragiten diguten neurri zehatzetan arreta jarriz, eskatutako gauza orokorrez gain, EAEko Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketako langileentzat honakoa eskatzen du LABek:

> Jangela-eredua hezkuntza-proiektuaren baitakoa izatea, jangelaren eta langileen izaera hezitzailea aitortuz eta aintzat hartuz. Jangela hezkuntza-proiektuaren parte izanik, elikadurak garrantzia hartuko du curriculumean, eta tokian tokiko produktuak erabiltzea lehenetsiko da.

> Zerbitzuetako langileek, hezitzaile diren heinean, haien jardunari eragiten dioten erabakien parte izatea, betiere berdintasun--irizpideen arabera.

> Lanpostu eta langileen kontsolidaziorako klausula: langileen lanpostu-zerrenda ezingo du gutxitu lege hau indarrean dagoen bitartean.

Además de las demandas generales, centrándonos en las medidas concretas que afectan al personal de cocina y limpieza del Departamento de Educación de la CAV, LAB solicita lo siguiente:

> Que el modelo de comedor forme parte del proyecto educativo, y se reconozca la función educativa del comedor y de su personal. Al ser el servicio de comedor parte del proyecto educativo, la alimentación cobrará importancia dentro del currículo y se priorizará el uso de productos locales.

> Que el personal de servicios, como personal educador que es, forme parte en el centro educativo de las decisiones que afecten a su área de actuación, de acuerdo a criterios de igualdad.

> Cláusula de consolidación de puestos de trabajo y personal: la relación de puestos de trabajo no podrá ser reducida durante la vigencia de esta ley.



**Bizitzaren garestitzearen aurrean** instituzioek neurri partzial eta ez--nahikoak besterik ez dituzte ezar-tzen. Soldaten eta pentsioen kontrako erasoa da.

Bestalde, **KPIaren araberako soldata--igoera** bermatzeak lehentasunezkoa izan beharko luke. Administrazioak mahai orokorraren bitartez KPI azpiko igoerak ezarri dizkigu langile publikoei. LAB sindikatua-ren ustez, KPIaren araberako gutxieneko igoera da; horri uko egitea soldaten kontrako erasotzat jo beharra dago. Kontratazioari dagokionez, pasa den urteko lan-erreforma leuntzeko saiakera egiten ari da eta lizentzia eta baimenak negoziatzeko tarte txikia uzten digute.

**Txanda-kontratuaren akordioa** ez dugu sinatzen, soilik langile finkoei eragiten dielako. Pentsioei dagokionez, hala Espainiako nola Frantziako Gobernuek murrizketa berriak aurreikusten dituztela salatzen du LAB sindikatuak. Pentsio-sistema publikoaren ahultzea ekarriko luketen erreforma aukerak zabalik daude Madril zein Parisen.

LABetik argi dugu sektore publikoak dituen gabeziei aurre egiteko **Euskal Herrian lege propioak** eta erabateko eskumenak gureganatu behar ditugula.

Blokeo horren aurrean **greba eta mobilizazioen aldeko apustua berresten dugu LABen**. Soldata eta lan-baldintza duinak dira ondasunaren banaketa orekatuago baterako hanka, zerga politika-rekin batera. Borroka sindikalaren bidez, kontrabotere sindikalismoa garatuz, enpleguaren, zaintza lanen eta ondasunaren banaketa [Banaketa Hirukoitza] agendaren erdigunean kokatzera doa LAB.

Babesa
Asesoramiento

Sostengua
Apoyo

Elkartasuna
Solidaridad

Bultzada
Impulso

Indarra
Fuerza

*Egiteko beste modu bat*

**Ante el encarecimiento de la vida**, las instituciones sólo establecen medidas parciales e insuficientes. Es un ataque a los salarios y a las pensiones. Debería ser prioritario garantizar una subida salarial en función del IPC. La Administración de la CAV, a través de la mesa general, ha impuesto incrementos por debajo del IPC al personal público. **El sindicato LAB considera que la subida mínima debería establecerse en función del IPC; renunciar a ello debe ser considerado un ataque a los salarios.** En cuanto a la contratación, se está intentando suavizar la reforma laboral del año pasado y nos dejan poco margen para negociar licencias y permisos.

No firmamos el acuerdo **del contrato de relevo** porque sólo afecta al personal fijo. En cuanto a las pensiones, el sindicato LAB denuncia que los Gobiernos español y francés prevén nuevos recortes. Las posibles reformas que debilitaría el sistema público de pensiones acechan tanto desde Madrid como de París.

En consecuencia, desde LAB tenemos claro,que para hacer frente a las carencias del sector público, **Euskal Herria necesita leyes propias** y asumir competencias plenas.

**En LAB nos reafirmamos en nuestra apuesta por impulsar huelgas y movilizaciones** ante este bloqueo del capital. Un salario y condiciones laborales dignas, junto a la política fiscal, son la base para un reparto más equilibrado de la riqueza. A través de la lucha sindical, desarrollando un sindicalismo de contrapoder, LAB va a situar en el centro de la agenda el reparto del empleo, de los trabajos de cuidado y la distribución de la riqueza  [Triple reparto].

HAUTESKUNDE SINDIKALAK

irakaskuntza.lab.eus

## SUKALDE ETA GARBIKETAN

# BAGARA *zurekin*

*Egiteko beste modu bat*


Tlf 678 189 147
z.laboralakaraba@lab.eus

Tlf 666 771 235
z.laboralakbizkaia@lab.eus

Tlf 666 772 620
s.ingunza@lab.eus

Tlf 666 779 317
z.laboralakgipuzkoa@lab.eus

Tlf 678 189 158
m.benito@lab.eus


Sukaldari eta garbitzaileez osatutako liberatuen taldea daukagu LAB sindikatuan. Araba , Gipuzkoan eta Bizkaian gaude eta lantalde indartsua dugu.

Egoera desblokeatzeko, gauzak eraldatzeko beharra ikusten dugu eta horretarako **LABek lehenengo indarra** izan behar du.

En el sindicato LAB contamos con un grupo de personas liberadas formado por personal de cocina y limpieza. Estamos en Araba, Gipuzkoa y Bizkaia, y contamos con un equipo potente.

Para transformar la situación actual, y mejorar las condiciones laborales, es necesario que **LAB sea la primera fuerza** en el colectivo.

LAB